



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

190. INFORMAZIO BULETINA

2023ko urria



Europar Batasunak
kofinantzatua

Cofinanciado por
la Union Europea



2023ko urria

ALBISTEAK

Europako Batzordeak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) adenda onartu du.

Berreskuratze Planari esker, guztira 163.000 milioi euro mobilizatu ahal izango dira 2021-2026 epealdian.

2023ko urriaren 2an, Europako Batzordeak Berreskuratze Planaren Adenda onartu du. Batzordearen onespena jaso ondoren, hilabeteko epea irekitzen da EBko Finantza Ministroen Kontseiluak erabakia berresteko.

Adendak inbertsio eta erreforma gehigarriak jasotzen ditu bultzatzeko, energiaren, nekazaritzako elikagaien, industriaren, teknologiaren eta digitalaren arloan autonomia estrategikoa, enpresen inbertsio jasangarriak, eta alokairurako etxebizitza-parkea.

Aurreikusitako inbertsioen bidez, Espainiako enpresetara eta ekonomiara bideratuko dira honako hauek:

- 10.000 milioi Next Generation EU funtsen eta REpowerEU programaren transferentzia gehigarrietan.
- 83.000 milioira arte maileguetan. Horri esker, segurtasun-sare bat ezarri ahal izango da eta inbertsio-zikloa luzatu ahal izango da datozen urteetan.

Adenda onartzearekin batera, transferentzien eta maileguen ordainketetarako egutegi berri bat onartu da. Era berean, zenbait mugarri eta helburu eguneratu dira, baldintza ekonomikoetan izandako aldaketa objektiboei eta autonomia-erkidegoen eskaerei erantzuteko, funtsak osorik gauzatu ahal izateko.

Informazio gehiago: [Prentsa oharra](#) (PDF) Gaztelaniaz.

Europako Funtsetan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Politiken Sarearen osoko bilkura egin da.

Ekitaldia urriaren 9an eta 10ean izan da, Gasteizen, eta EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundearen laguntza izan du.

Europar Batasuneko funtsetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politiken sarea eztabaidarako eta analisirako gune nagusia da, Europako Egitura eta Inbertsio Funtsek kofinantzatutako esku-hartzeetan genero-ikuspegia benetan eta eraginkortasunez hobeto integratzeko. Osoko bilkura da kide guztiek osatzen duten organoa eta bere topagune nagusia, eta Sareak programazio-aldi berri honetan aurre egin behar dien erronkei buruz eztabaidatzeko lekua izan da.



2023ko urria

Osoko bilkuran parte hartu dute emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken ardura duten erakundeek eta FEDER, FSE+, FEMPA, FTJ, FAMI, FESI eta IGFV funtsen ardura duten erakundeek.

Hilaren 10eko saioan, Euskaditik bultzatutako gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-printzipioa txertatzeko bi jardunbide egoki aurkeztu dira:

- Europar Batasunaren Egitura Funtsetan Berdintasunari buruzko Erakundearteko Lantaldea. Lantalde Teknikoa 2015ean sortu zen. Horren helburu nagusia da, Emakunderen bultzadarekin, Europako funtsekin kofinantzatutako EAEko programetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren estrategia indartzea. 2021-2027 programazio-aldian, FEDER, FSE+, FEMPA eta FEADER funtsetan du eragina taldeak. Egiturazko funtsen programen koordinazioan eta kudeaketan parte hartzen duten erakundeetako ordezkariak (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak) eta erakunde horietako berdintasun-organoak osatzen dute taldea.
- Gizarte-kalteberatasuneko eta/edo indarkeria matxistako egoeran dauden emakumeak gizarteratzeko eta laneratzeko programa, Emaktiva, Euskadiko 2014-2020 epealdiko Europako Gizarte Funtzarekin finantzatua.

Era berean, Emakundek aurkeztu du trebakuntza-saio bat Europako Funtsekin kofinantzatutako programetan berdintasun-helburuen jarraipena eta ebaluazioa harmonizatzekoari buruzkoa. Azpimarratu behar da, Emakundek koordinatzen duela Euskadiko erakundeen arteko lana, Europako finantziarioa duten proiektu ezberdinetan berdintasuna txertatzeko.

Informazio gehiago: [Osoko bilkura](#).

Toki-erakundeek sustatutako enplegurako prestakuntza-proiektuak hautatzeko deialdia.

Deialdia Europako Gizarte Funts Plusaren (FSE+) 2021-2027 Enplegu, Hezkuntza, Prestakuntza eta Gizarte Ekonomiako Programak finantzatzen du.

Urriaren 19ko Estatuko Aldizkari Ofizilean (250. zk.) argitaratu da toki-erakundeek sustatutako enplegurako prestakuntza-proiektuak hautatzeko lehen deialdia, 2021-2027 epealdiko Europako Plus Gizarte Funtsetan (FSE+) Enplegu, Hezkuntza, Prestakuntza eta Gizarte Ekonomiako Programaren bidez finantzatua.

Deialdi hori arautuko duten [oinarri arautzaileak](#) (gaztelaniaz) ekainaren 30eko Estatuko Aldizkari Ofizialean (155. zk.) onartu ziren.

Deialdi honetarako erabilgarri dagoen laguntza 200 milioi eurokoa da, eta eskualde garatuenen kategorian, Euskadi horien artean dago, 13,6 milioi euroko esleipena dago.

Eskabideak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 25ean amaituko da, 15: 00etan.

Informazio gehiago: [Deialdirako esteka](#) (gaztelaniaz).



2023ko urria

Gipuzkoako Udalek jasotako Next Generation funtsen laguntzak.

Nabarmentzekoak dira Donostiako Udalak eta Irungo Udalak hurrenez hurren jasotako 28,3 eta 9,5 milioiak.

Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioaren Europako funtsen webguneak **EBAZPENAK** izeneko atal berri bat du.

Bertan, Next Generation EU funtsetako laguntzen behin betiko ebazpenei buruzko informazioa jasotzen da, 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldiei dagozkienak, orain arte eskuragarri daudenak. Toki-erakundeak dira onuradunak, eta Estatuko Administrazio Orokorretik datoz zuzenean. Ez dira sartzan autonomia-erkidegoek banatutakoei dagozkienak; beraz, toki-erakundeentzat ebatzitako zenbatekoak askoz handiagoak dira.

Gipuzkoako udalei dagokienez, 63,7 milioi euro jaso dituzte, besteak beste, helmugako jasangarritasun turistikoko planei, merkataritzari, eraikin publikoen birgaitzeari eta emisio txikiko eremuei buruzko deialdietan banatuta.

Informazio gehiago: [Laguntzen zerrenda](#) (PDF).

Herritarrek EBko eskualde-politikari buruz duten kontzientziari eta pertzepzioari buruzko eurobarometroa.

Lagina egiteko, telefono bidezko 25.000 inkesta baino gehiago egin zaizkie 15 urtetik gorakoei estatu kide guztietan.

Emaitzek (PDF) erakusten dutenez, EBk finantzatutako proiektuen ezagutza orokorra % 39koa da, hau da, duela 12 urte baino % 5 gehiago.

EBk finantzatutako proiektuak ezagutzen dituzten inkestatuen % 79k uste du eragin positiboa duela eskualdeetan. Inkestatuen % 46k Eskualde Garapeneko Europako Funtzari (EGEF) eta/edo Kohesio Funtzari buruz hitz egiten entzun dute, eta % 45ek Europako Gizarte Funtzari buruz. Inkestatuen % 29k, berriz, REACT-EU edo Next GenerationEUri buruz hitz egiten entzun dute.

Bestalde, inkestatuen % 63k dio EBk eskualde guztietan inbertitu beharko lukeela, eta % 33k dio EBk eskualde pobreenetan soilik inbertitu beharko lukeela.

Informazio gehiago:

- [Eurobarometroaren emaitzak](#) (ingelesez)
- [Bideoa](#) (gaztelaniaz)



2023ko urria

EUROPAKO DEIALDIAK

NEXT GENERATION FUNTSEKIN FINANTZATUTAKOAK

Berreskurapen, eraldaketa eta erresilientzia planaren (BEEP) barruan berrikuntza sozialeko proiektuetarako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak, espezifikoak eta 2023 deialdia.

Luzatu egiten da abenduaren 22ko ICT/1363/2022 Aginduaren bidez deitutako laguntzak emateko ebazpen-epea. Agindu horren bidez, turismo-erabilerako Ondare Historikoa hobetzeko eta dinamizatzeko programaren oinarri arautzaileak ezartzen dira, eta 2022ko ekitaldirako deialdia egiten da, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. Laguntzak emateko ebazpenaren epea 2024ko maiatzaren 17ra arte luzatuko da, gehienez ere.

Tokiko lurralde-erakundeei eta lurralde-erakundeen mendeko erakunde publikoei laguntzak emateko deialdia egiten da, prestakuntza irekia, malgua eta urrutikoa emateko gelak sor ditzaten, Mentore Gelaren bidez, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Biltegiratze elektriko independenteko eta biltegiratze termikoko proiektu berritzaileetarako laguntzen deialdia.

Ponpaketa itzulgarri bidez biltegiratzeko proiektu berritzaileetarako laguntzen deialdia. Eskeraerak aurkezteko epea ere luzatu egin da eta 2023ko azaroaren 3ko 12:00ak arte egongo da zabalik.

Gizarte Ekonomia Bultzatzeko Plan Integralerako laguntzak, ehun ekonomiko, inklusibo eta iraunkorra sortzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. 2022ko eta 2023ko laguntzen deialdian luzatu egin dira diruz lagundu daitezkeen proiektuak eta jarduerak egiteko eta laguntzak justifikatzeko epeak.



2023ko urria

BESTE DEIALDIAK

Eskualdeen arteko berrikuntza-inbertsioen I-3 tresna. Eskualde Garapeneko Europako Funttsaren finantzaketa. Espezializazio adimenduneko arloak. A) 1. eta 2. kapituluak. Eskualdeen arteko berrikuntzan inbertsioak egiteko laguntza finantzarioa eta aholkularitzakoa ematea espezializazio adimenduneko eremu partekatu edo osagarrietako proiektuei, hain garatuak ez diren eskualdeak ere barne.

- **I-3, 1. atala.** 1. atala eskualdeen berrikuntzako eragileen partzuergoei zuzenduta dago (garapenaren eta berrikuntzaren arloko jarduera-maila desberdinetakoak), gaitasun partekatuak edo espezializazio adimenduneko arlo osagarriak dituztenak, eta eskualdeen arteko berrikuntza-proiektuetan inbertsioak egiteko prest daudenak. I3-2023-INV1.
- **I-3, 1. atala.** 2. atalak eskualde arteko berrikuntza-inbertsioak babesten ditu, hain garatuak ez dauden eskualdeetan balio-kateak garatzeko eta EBko balio-kateetan berrikuntzaren eragileen integrazioa indartzeko. 2aI3-2023-INV2a.

PPPA. Proiektu pilotuak eta prestakuntza-ekintzak (EBko finantzaketa-programen esplorazio-faseak). Kirol-ekintza jasangarriak eta larrialdiak edo gatazkak jasan dituzten gazteentzakoak. Europako Hezkuntza eta Kultura Agentzia Exekutiboa. PPPA-k etorkizuneko programa finkatuertarako proiektu pilotuak edo prestakuntza-ekintzak dira.

- **PPPA-SPORT-2023-EMERGENCY-YOUTH.** Errefuxiatutako gazteak kirolaren bidez gizarteratzea.
- **PPPA-SPORT-2023-PEOPLE-PLANET.** Kirola pertsonentzat eta planetarentzat: kirolaren bidezko jasangarritasunari buruzko ikuspegi berri bat Europan.

Europe Direct. EBri buruzko herritarren informazio- eta partaidetza-zentroen sarea. Eslovakian jarduerak egiteko bazkideen hautaketa.

- **EUROPE DIRECT (2023-2025).** Eslovakian jarduerak egiteko bazkideen hautaketa. ED-SK-2023.

Europa Digitala Programa. Osasun-digitalizazioa txertatzea. Erakundeen arteko lankidetzaren senidetzeak.

- **DIGITAL-2021-DEPLOY-01-HEALTH.** Digital Europe programaren Deploy (implementazioko) lerroko osasun-atala.



2023ko urria

Merkatu Bakarraren Programa (SMP) eta Enpresa Txiki eta Ertainen Lehiakortasuna (COSME). Laguntza sektorialak eta klusterrak. SMP-COSME-2021-CLUSTER-01.

- **POLREC.** Hondakin polimerikoak birziklatzeko berrikuntza.
- **GEMSTONE Berrikuntza Berdea.** Fabrikazio ekologikoa, ETE industrialen berreskurapena eta erresilientzia babestuz. Berrikuntza berderako finantza-laguntza. Banakako edo lankidetzazko proiektuak.
- **GEMSTONE Adopzio Berdea.** Fabrikazio ekologikoa, ETE industrialen berreskurapena eta erresilientzia babestuz. Negozio-prozesuetan berrikuntza berdeak ezartzeko finantza-laguntza. Lankidetzazko proiektuak.
- **SocialTech4EU.** Gizarte-enpresentzako laguntzak, negozioen bideragarritasun-azterketei buruzko gaikuntzarako.
- **E-BOOST (feria Solutrans).** E-BOOST "enpresa txikiak berreskuratzeko eta nazioartekotzeko elektromugikortasunezko" azpiprograma bat da. Sektoreko enpresei Lyongo Solutrans azokara joateko laguntza.
- **E-BOOST (Comunicación).** Komunikazio-tresna berritzaileak garatzea E-BOOST elektromugikortasun-programako beste deialdi batzuen onuradun diren erakundeentzat.

Merkatu Bakarraren Programa (SMP) eta Enpresa Txiki eta Ertainen Lehiakortasuna (COSME). Turismoaren sektorerako laguntzak. SMP-COSME-2021-TOURSME-01 eta TOURINN-01-2020.

- **I-STARS.** Uharteetako ETE eta mikroETE turistikoentzako laguntzak 5 herrialdetan. SMP-COSME-2021-TOURSME-01.
- **TourINN-Act.** Turismo-ostatu eta -bitartekaritzako ETEentzako berrikuntza-plataforma. TOURINN-01-2020.

EU4Health. Europako Osasun Programa.

- **EU4H-2023-PJ-**
 - -01. Osasun-arloko mugaz gaindiko mehatxuetarako gailu medikoetarako sarbidea. Larrialdien aurrean prestatzeko eta erantzuteko agintaritzak (HERA). (CP-g-23-13).
 - -02. Gaixotasun ez-kutsakorren prebentziorako laguntza. Arnasketako gaixotasun kronikoen atala. (DP-g-23-31-02).
 - -03. Osasun mentalaren arloan gaixotasun ez-kutsakorrek prebenitzeko laguntza, biztanleria-talde ahulei laguntzeko ekintzak barne, hala nola migratzaileei, errefuxiatuei, erromaniei eta Ukrainatik mugiarazitakoei. (DP-g-23-32-02).
 - -04. Dementziaren eta bestelako nahaste neurologikoen eremuan transmititu ezin diren gaixotasunak prebenitzeko laguntza. (DP-g-23-33-02).



2023ko urria

- -05. Erradiazio ionizatzaileen aplikazio medikoetarako agenda inplementatzea (Samira ekintza-plana): auditoria klinikoko kanpainak antolatzea aplikazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko tresna gisa.
- -06. Minbizirik bizirik atera diren pazienteentzako osasun mentaleko erronkei buruzko ekintzen atal orokorra. (CR-g-23-19.01).
- -07. Atal berezia (Osasun Mentaleko Europako Kodeari lotua), minbizia duten paziente eta biziraun dutenentzako osasun mentaleko erronkei buruzko ekintzei buruzkoa.. (CR-g-23-19.02).
- -08. Giza jatorriko substantzien erabilera berrien segurtasunari eta kalitateari buruzko jarduketak. Amaesneazko atala. (HS-g-23-50.01).
- -09. Giza jatorriko substantzien erabilera berrien segurtasunari eta kalitateari buruzko jarduketak. Bakterio-floraren atala. (HS-g-23-50.02).
- -10. Organoen elkartruke gurutzatua errazteko ekintzak. (HS-g-23-51).
- -11. Banaketa errentagarririk gabeko (baina behar oinarriko) osasun-produktuei buruzko programa, bereziki pediatriako pazienteei zuzendua. (HS-g-23-65).
- -12. Biltzarrak eta ekitaldiak antolatzea. (OA-g-23-89).

Europako Teknologia Institutua. Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **BoostUp! Hego-Ekialdea 2023.** BoostUp (Bultzatu). Beren negozioak Europan handitzea eta nazioartera zabaltzea helburu duten startup-entzako lehiaketa. Hego-ekialdea. Europako Teknologia Institutuaren (EIT) eta haren berrikuntza- eta ezagutza-komunitateen (KIC) manufaktura-dibisioaren (fabrikaziokoaren) deialdia.. HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITMANUFACTURING.
- **EIT Deep Tech Talent.** Teknologia aurreratuko talentuak prestakuntzarentzako sariak. Europako Teknologia Institutuaren (EIT) eta haren berrikuntza- eta ezagutza-komunitateen (KIC) manufaktura-dibisioaren (fabrikaziokoaren) deialdia. HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITMANUFACTURING.
- **Co-Create NEB.** Hiri-mugikortasuna. Tokiko erkidegoentzako eta agintari publikoentzako laguntzak, espazio publiko iraunkorrak, estetikoak eta inklusiboak modu parte-hartzailean sortzeko. NEB edo Europako Bauhaus Berriaren filosofia hartzen duten proiektuak, sormena eta jasangarritasuna bateratzeko. EIT hiri-mugikortasunaren atalak, Teknologiaren Europako Institutuak eta haren KICek edo Ezagutza eta Berrikuntza Komunitateek sustatutako ekimenak, sinergia estrategikoak sortzeko ikuspegiarekin. HORIZON-EIT-2023-25-Cross-KIC-Strategic-Synergies.

Karbonoa murrizteko Low Carbon azpiprograma. Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **RESPONSE.** Hackathon teknikoa. Informatika-garatzailentzako erronka. Energia eraginkortasunez kudeatzeko eta monitorizatzeko sistemak sortzea. Topaketaren egoitza Turkun (Finlandia). LC-SC3-SCC-1-2018-2019-2020. Karbonoa murrizteko Low Carbon azpiprograma (LC), SC3 atala (energia adimenduna, garbia eta efizientea lortzeko 3. gizarte-erronka). SCC azpiatala (hiri eta komunitate adimendunak).



2023ko urria

- **EJP SOIL** (Nekazaritzako lurzoruari buruzko Europako Programa Bateratua). Azpiegitura teknologikoetarako sarbidea. LC-SFS-20-2019. Elikagaien Segurtasun Iraunkorrerako SFS ekintza-ildoak.

ERC. Europako Ikerketa Kontseilua. Hasierako beka. Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **ERC Starting Grants.** Ikerketa-karrerak hasteko beka.

ERA. Europako Ikerketa Esparrua. Erresilientzia sozioekonomikora bideratutako laborategi pilotuak. Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **FUTURESLIENCE.** 10 kasu eta laborategi pilotu Europaren etorkizuneko indartze sozioekonomikorako eremu kritikoetan. HORIZON-WIDERA-2022-ERA-01-32.

Europako Berrikuntza Ekosistemak (EIE). Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **EIE Connect.** "Interkonexioaren" Connect atala. Konektatutako eskualde-berrikuntzako "haranetarako" kofinantzatutako ekintza-planak ezartzeko deialdia. HORIZON-EIE-2023-CONNECT-03-01.
- **EIE – Innowwide.** ETE berritzaileei buruzko Europako elkarlanerako deialdia. HORIZON-EIE-2023-CONNECT-03-01.

MSCA – Marie Skłodowska Curie ekintzak. Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **HORIZON-MSCA-2023-CITIZENS-01-01.** Herritarrei begirako atala. Ikertzaileen Europako Gauari buruzko ekintzak eskoletan 2024-2025 aldirako.

Horizon Europe berrikuntzako esparru-programaren helburu bakoitzeko klusterrentzako edo erakunde-sareentzako laguntzak.

- **SERMAS.** "Gizartean Onargarriak diren Errealitate Hedatuko Ereduak eta Sistemak". EBk babestutako partzuergoa eta eredu teknologikoa, teknologia estrategiko horren garapenean jarraitu beharreko adibide gisa. HUMAN atala, teknologia humanizatzaileari buruzkoa, Horizon esparruko 4. klusterrarena (CL4, digitala, industriala eta espaziala). HORIZON-CL4-2021-HUMAN-01-13.
- **UTTER.** Transkripzioarako, itzulpenetarako, laburpenetarako eta aktetarako errealitate hedatuko teknologia multimodalaren hurrengo belaunaldia. HUMAN atala, teknologia humanizatzaileari buruzkoa, Horizon esparruko 4. klusterrarena (CL4, digitala, industriala eta espaziala). HORIZON-CL4-2021-HUMAN-01-13.
- **STAGE.** Plataforma edo ekosistema digitala, jasangarritasunera bideratutako berrikuntzarako finantzaketa eta jakintza-baliabideen sare baterako sarbidea emateko. Europako erresilientzia-



2023ko urria

erronketarako atala, Horizon esparruko 4. klusterrarena (CL4, digitala, industrial eta espaziala). HORIZON-CL4-2021-RESILIENCE-01-29.

- **AIRISE.** Fabrikazioari aplikatutako adimen artifizialaren esparruko lankidetzeta-plataforma. Erakunde "enbaxadoreentzako" deialdia. Horizon esparruko 4. klusterraren (CL4, digitala, industrial eta espaziala) trantsizio ekologiko eta digital bikoitzaren atala. HORIZON-CL4-2022-TWIN-TRANSITION-01-06.
- **HORIZON-CL6-2024-BIODIV-01-8.** Karbonoan eta biodibertsitatean aberatsak diren baso-ekosistemak kontserbatzea eta babestea. Horizongo 6. klusterra, elikadurari, bioekonomiari, baliabide naturalei eta nekazaritzari buruzkoa. Biodibertsitatearen helburuaren atala.
- **CCRI-PDA.** Hiri eta Eskualde Zirkularren Ekimeneko Proiektuak Garatzeko Laguntza. Horizongo 6. klusterra, elikadurari, bioekonomiari, baliabide naturalei eta nekazaritzari buruzkoa. Bioekonomia zirkularren atala. HORIZON-CL6-2024-CircBio-01-1.
- **CL5-2023-D3-03.** Horizon Europe enpresaren 5. klusterraren (energia, klima eta mugikortasuna) 3. helmugako (energia-hornidura jasangarria, segurua eta lehiakorra) 3. deialdi-sorta.
 - HORIZON-CL5-2023-D3-03-01. Elektrizitatea eta beroa/hotza sortzeko energia estatikoa bihurtzeko gailu berritzaileen eraginkortasuna handitzea.
 - HORIZON-CL5-2023-D3-03-02. Hidrogenoa edo metanoa ez diren gas berriztagarriak integratzea, gas-sareetarako eta sarbiderik ez dutenak elektrizitate- eta bero-sektoreekin.
 - HORIZON-CL5-2023-D3-03-03. Sarea planifikatzeko eta eguneratzeko sistemaren ikuspegia, mugikortasun elektriko nagusitu bati laguntzeko (ibilgailuak eta itsasontziak), adimen artifizialeko tresnak erabilia.
 - HORIZON-CL5-2023-D3-03-04. Energia-merkatuan zerbitzu digitalen erabilera hobetzeko tresna digitalak.
 - HORIZON-CL5-2023-D3-03-05. Erabiltzaileen arteko energia-trukerako plataformaren arkitektura estandarizatua eta kode irekikoa energia-sektorerako sortzea.
 - HORIZON-CL5-2023-D3-03-06. Korrante alternoko eta jarraituko alboko babes-sistemarako osagaiak eta interfazeak (KK/KJ sarea): sarea optimizatzeko osagaiak eta sistemak.
 - HORIZON-CL5-2023-D3-03-07. Energia berriztagarrien nazioarteko balio-kateetan sinergiak definitzeko soluzio digitalak.
 - HORIZON-CL5-2023-D3-03-08. Energia-teknologia estrategikoen SET planaren hidrogenoa ezartzeko lantaldeei laguntzea.

Europako Berrikuntza Kontseilua (EIC). Erronka aitzindarien programaren (Pathfinder) eta programa bizkortzailearen deialdiak. Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **EIC Pathfinderraren Erronkak.** HORIZON-EIC-2023-PATHFINDERCHALLENGES-01.
 - -01. Hozte garbia eta eraginkorra.



2023ko urria

- -02. Digitalizazioa arkitekturan, ingeniartzan eta eraikuntzan, diseinu, fabrikazio eta materialen hirukote berri baterako.
- -03. Doitasunezko nutrizioa.
- -04. Elektronika arduratsua.
- -05. Eguzki-energia biltzea espazioan, aplikazio espazial berritzaileetarako.
- **EIC Accelerator-en erronkak.** HORIZON-EIC-2023- ACCELERATORCHALLENGES-01.
 - -01. Biomarkatzaileetan oinarritutako saiakuntza berriak minbiziaren tratamendu pertsonalizatua gidatzeko.
 - -02. Pandemiak kudeatzeko aerosolak eta gainazalak deskontaminatzea.
 - -03. Energia biltegitratzea.
 - -04. Europako Bauhaus berria (sormen jasangarriaren ekimena) eta arkitektura, ingeniartza eta eraikuntzaren digitalizazioa, deskarbonizatorako.
 - -05. Teknologia kuantikoko edo material erdieroaleetako osagai emergenteak.
 - -06. Teknologia berriak nekazaritza erresilienterako.
 - -07. Teknologia eta zerbitzu espazial berritzaileak eta bezeroari bideratuak.
- **EIC Accelerator Open.** EICren programa "bizkortzaile" gai irekiko deialdia. HORIZON-EIC-2023-ACCELERATOROPEN-01.

LIFE. Ingurumen- eta klima-ekintzarako programa. Energia Garbiaren Trantsiziorako CET atala.

- **LIFE-2023-CET-** Hurrengo epea: 23.11.16.
 - LIFE-2023-CET-BETTERRENO. Eraikinen energia-errendimendua: berrikuntza azkarragoa, sakonagoa, adimentsuagoa eta zerbitzuetan eta datuetan oinarritua izateko baldintzak sortzea.
 - LIFE-2023-CET-BUILDSKILLS. Deskarbonizatutako eraikinen parkea eta energia-sistemaren integrazioa ahalbidetuko duten gaitasunak eraikitzea.
 - LIFE-2023-CET-BUSINESS. Europako enpresen trantsizio energetiko garbia babestea.
 - LIFE-2023-CET-DHC. Hiri-berokuntza eta -hoztea: erregaiaren modernizazioa eta aldaketa ahalbidetzea, inbertsio-planak eta trebetasunak garatuz.
 - LIFE-2023-CET-ENERCOMFACILITY. Energiaren Europako Kidegoen Funtza.
 - LIFE-2023-CET-ENERPOV. Europako etheen pobrezia eta zaugarritasun energetikoa arintzea.
 - LIFE-2023-CET-EPREL. EPREL datuen erabilera maximizatzea eta balorizatzea (Energia Etiketatzen Produktuen Europako Erregistroa) aplikazio berritzaileen bidez.
 - LIFE-2023-CET-HEATPUMPS. Bero-ponpen hedapena bultzatzea eredu alternatiboen eta instalatzaile kualifikatuen bidez.



2023ko urria

- LIFE-2023-CET-LOCAL. Energia garbietara igarotzeko plan eta estrategietarako laguntza teknikoa udalerrri eta eskualdeetan.
- LIFE-2023-CET-OSS. Eraikin eta enpresetako energia garbietarako trantsizioan integratutako zerbitzuetarako laguntza operatiboko sistemak (OSS).
- LIFE-2023-CET-PDA. Energia iraunkorrean inbertsioak egiteko proiektuak garatzeko laguntza.
- LIFE-2023-CET-POLICY. Energia iraunkorraren arloan funtsezko legeria eraginkortasunez ezartzeko bidea.
- LIFE-2023-CET-PRIVAFIN. Energia-eraginkortasunari eta energia-iturri berriztagarriei eskala txikian esleitutako finantzaketa pribatua sustatzea, finantzaketa-eskema berritzaileak ezarriz energia iraunkorrean inbertsioak egiteko eta/edo finantza-erakundeekin lankidetzan arituz, finantza-produktuak garatzeko eta inbertsio-praktikak egokitzeko.

Digital Europe. Digitalizazio-programa. Zibersegurtasuneko zentroak. Errendimendu handiko konputazioko ETEak.

- **DIGITAL-2022-CYBER-02-NAT-COORDINATION.** Zibersegurtasuneko Berrikuntza Funtza (IFK). Herbehereetako Zibersegurtasuna Koordinatzeko Zentroak (NCC-NL) bideratutako laguntza. Hurrengo epea: 23.11.2.
- **DIGITAL-EUROHPC-JU-2023-SME-01-01.** Errendimendu handiko konputazio-aplikazioetan diharduten ETEen lehiakortasunerako eta berrikuntzarako laguntza (HPC). Hurrengo epea: 23.11.7.

PERA. Landareen ingurumen-arriskuaren analisia. Produktu fitosanitarioen analisia ikuspegi sistemikorantz aurrera egiteko laguntzak. EUBA. EBko organoak eta agentziak. EFSA. Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza.

- **EUBA-EFSA-2023-PREV-01.** Hurrengo epea: 23.11.08.

Merkatu Bakarraren Programa (SMP) eta Enpresa Txiki eta Ertainen Lehiakortasuna (COSME). Laguntza sektorialak eta klusterrak. SMP-COSME-2021-CLUSTER-01.

- **SUSTAIN.** Eraikin adimendunen eraikuntzetan berrikuntzak egiteko zerbitzuak garatzeko deialdi irekia. Hurrengo epea: 23.11.01.
- **DESIRE Eurocluster.** E-osasuneko ETEak edo osasun-zerbitzu digitalak berritzeko eta nazioartekotzeko zuzeneko finantzaketa. Hurrengo epea: 23.11.13.
- **EuroBoosTEX Innovate Boost.** EuroBoosTEXen berrikuntza bultzatzeko partzuergoentzako laguntzak, Ehungintza suspertzeko Europar Ekimen Bateratua, trantsizio digitala eta berdea bultzatuz. Hurrengo epea: 23.11.8.
- **E-BOOST, hidrogeno-atala.** Hidrogeno garbiarekin lotutako sektoreetan produktu eta zerbitzu berritzaileak garatzen laguntzea. Elektromugikortasuna bultzatzeko E-BOOST azpiprograma, enpresa txikiak suspertu eta nazioartekotzeko. Hurrengo epea: 23.11.8.



2023ko urria

- **F2F Health Matters Programa.** Elikadura osasungarriaren arloari lotutako ETEak nazioartekotzea, Europako F2F estrategiaren arabera (Etxaldetik Mahaira). CLUSINT-01-2020. Frantziako 3 eskualdetatik gidatutako enpresa txiki eta ertainen partzuergoentzako laguntza, UAE-ko merkaturako. Hurrengo epea: 23.11.2.

Creative Europe. Europa Sortzailea programa. Kultura Lagungarria. Ukrainako sektore sortzaileari laguntzeko ekimena. Kultura eta lankidetzatza atala. Kulturaren bidezko integrazioa (bigarren deialdia). CREA-CULT-2023-COOP-UA.

- **Bekak** lekualdatutako ukrainarrentzako. Hurrengo epea: 23.11.14.
- **Proiektuetarako laguntzak** lekualdatutako ukrainarrentzako. Hurrengo epea: 23.11.6.
- **ZMINA: REBUILDING.** Ukrainako artistei eta kultura-erakundeei laguntza ematea, Ukrainan eta Europa Sortzaileko herrialdeetan obrak sortu eta erakusteko. Izolyatsia Fundazioaren (Ukraina) gidaritzapean, Maly Berlin (Eslovakia) eta Trans Europe Hallesekin (Suedia) lankidetzan. Dirulaguntzen 4 deialdi ireki. Hurrengo epea: 23.11.7.

CEF, Europa Konektatzeko Mekanismoa. Garraioen atala. Erregai alternatiboetarako azpiegitura-funtsa. Kohesio Politikako eskualdeentzako laguntza orokorrak eta espezifikoak, gas natural likidotuko obrak edo zero isuriko teknologikoak barne.

- Hurrengo epea: 23.11.07.
- **AFIFGEN.** Laguntza orokorrak.
 - CEF-T-2021-AFIFGEN-UNITS. Modalitate orokorra.
 - CEF-T-2021- AFIFGEN-WORKS-LNG . Gas natural likidotuari lotutako obrak.
 - CEF-T-2021- AFIFGEN-WORKS-ZE. Zero emisioko teknologiei lotutako obrak.
- **AFIFCOEN.** Kohesiorako laguntzak (bereziak EBn gutxien garatuta dauden eskualdeetarako).
- CEF-T-2021-AFIFCOEN-UNITS. Modalitate orokorra.
- CEF-T-2021-AFIFCOEN-WORKS-LNG . Gas natural likidotuari lotutako obrak.
- CEF-T-2021-AFIFCOEN-WORKS-ZE. Zero emisioko teknologiei lotutako obrak.

Writing European. Fikziozko telesaileri laguntzea. PPPA. Proiektu pilotuak eta prestakuntza-ekintzak (EBko finantzaketa-programen esplorazio-fasea). Komunikabideen atala. Europako Hezkuntza eta Kulturarako Agentzia Exekutiboa.

- PPPA etorkizuneko programa finkatuetarako proiektu pilotuak edo prestakuntza-ekintzak dira.
- **PPPA-MEDIA-2023-WRITINGEU.** Hurrengo epea: 23.11.07. Ikus-entzunezko industria europarrak abangoardiako fikziozko telesailak sortzeko duen gaitasunari laguntzea, mugetatik ikusleak erakartzea, nazio- eta hizkuntza-esparru desberdinetan lan egiteko gai diren talentu europarren komunitatea elikatzea, lankidetzatza zabaltzea eta talentudunei etengabeko aukerak eskaintzea European bere ibilbidean zehar.



2023ko urria

Response-Hack2Horizon 2023. Karbonoa murrizteko Low Carbon azpiprograma. Hiri deskarbonizatueterako teknologien programazioa garatzeko ekitaldia. Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **RESPONSE.** Hackathon teknikoa. "Bi egun berrikuntzan Hiri Erresilienteetarako eta Karbono Murrizketarako". Topaketaren egoitza, Dijonen (Frantzia). LC-SC3-SCC-1-2018-2019-2020. Karbonoa murrizteko Low Carbon azpiprograma (LC), SC3 atala (energia adimenduna, garbia eta efizientea lortzeko 3. gizarte-erronka). SCC azpiatala (hiri eta komunitate adimendunak). Hurrengo epea: 23.11.10.

SESAR. Europako Zeru Bateraturako Transferentzia Modu Asinkronoen ATM Teknologia Ikertzeko Programa. Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **HORIZON-SESAR-2023-DES-ER2-.** Europako Zeru Digitalaren DES atala. Esploratzeko ikerketaren azpiatala (ER). WA1 (oinarizko ikerketa) eta WA2 (ATM aplikazioen) lan-arloak. Hurrengo epea: 23.11.15.
 - -WA1-1. ATM teknologia konektatuak eta automatizatuak – Ikerketa orokorra.
 - -WA1-2. Aire eta lurreko arteko gailuen integrazioa eta autonomia. Ikerketa orokorra.
 - -WA1-3. Eskariaren araberako edukiera eta aire-espazio dinamikoa.
 - -WA1-4. U espazioa (droneak) eta hiriko aireko mugikortasuna.
 - -WA1-5. Birtualizazioa eta datu-trukaketa zibersegurua.
 - -WA1-6. Bidaiariaren esperientzia eta multimodalitatea.
 - -WA1-7. Hegazkingintzaren Itun Berdeari lotutako ekintzak – Ikerketa orokorra.
 - -WA1-8. Abiaziorako adimen artifiziala. Ikerketa orokorra.
 - -WA1-9. Elkarreragingarritasuna eta koordinazio zibil-militarra.
 - -WA2-1. ATM teknologia konektatuak eta automatizatuak – ATM aplikazioak.
 - -WA2-2. Aire eta lurreko arteko gailuen integrazioa eta autonomia. – ATM aplikazioak.
 - -WA2-3. Hegazkingintzaren Itun Berdeari lotutako ekintzak – ATM aplikazioak.
 - -WA2-4. Abiaziorako adimen artifiziala– ATM aplikazioak.

RIS Education EITUM BP 23-25. Hiri-mugikortasunari buruzko hezkuntza. Teknologiaren Europako Institutua. Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **RIS Education EITUM BP 23-25.** EITren RIS edo Eskualdeko Berrikuntza Eskemaren, Teknologiaren Europako Institutuaren, haren Hiri Mugikortasuneko Atalaren (UM) eta haren KICen (Ezagutza eta Berrikuntza Komunitateak) eta EITren 2023-25 planaren esparruko hezkuntza-ekintzetarako deialdia. Eskualde Berrikuntzaren RIS Eskemak EBko eta inguruko herrialdeak hartzen ditu, aurreratuenak izan ezik. HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITURBANMOBILITY. Hurrengo epea: 2023.11.15.



2023ko urria

REMEDIES. Plastikoa biltzeko eta balioztatzeko konponbideak ozeanoetan. Horizon Europe berrikuntzako esparru-programaren ozeanoetarako misioa.

- **HORIZON-MISS-2021-OCEAN-03-01.** Hurrengo epea: 2023.11.15.

SGA-NZC Pilot Cities. Zero emisio garbiko hiriak (NZC). Horizon Europe berrikuntzako esparru-programako hiri adimendunetarako eta klimatikoki neutraletarako misioa.

- **HORIZON-MISS-2022-CIT-SGA.** Dirulaguntza Espezifikoaren Akordioa (SGA). Esperimentaziorako hiri pilotuak. Laguntzen 2. kohortea. Hurrengo epea: 2023.11.6.

Europako Ikerketa Kontseilua (ERC). Hasierako bekak eta sinergia-bekak. Epeen luzapena. Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **ERC-2024-STG (hasierakoak) y ERC-2024-SyG (sinergikoak).** Hurrengo epea: 2023.11.7.

EURATOM-2023-NRT. Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa (Euratom). Teknologia nuklearrak eta erradiazioak. Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **HORIZON-EURATOM-2023-NRT-01-** Euratom ikerketa eta prestakuntza programa. Hurrengo epea: 2023.11.8.
 - -01. Martxan dauden zentral nuklearren eta ikerketa-erreaktoreen segurtasuna.
 - -02. Ur arineko erreaktore modular txikien segurtasuna.
 - -03. Diseinu nuklear aurreratu eta berritzaileen segurtasuna.
 - -04. Material nuklearrak ikertzeko kofinantzatutako Europako elkarteak.
 - -05. Aktinido txikiak industria-aplikazioetara banatzea eta transmutatzea.
 - -06. Erradiazio ionizatzaileen aplikazio energetiko eta ez-energetikoen segurtasunerako hobetutako datu nuklearrak.
 - -07. Segurtasuna eta bikaintasuna lortzeko teknologia berritzaileak, robotika eta adimen artifiziala barne.
 - -08. Ikerketa-erreaktoreetarako gutxi aberastutako erregaiaren segurtasuna: mediku-erradioisotopoen hornidura bermatzea.
 - -09. EBren autonomia estrategikorako, ekonomia zirkularrerako eta klima-aldaketaren aldeko politiketarako teknika nuklearrak eta erradiazio-teknikak.
 - -10. Zientzia, teknologia eta babes erradiologiko nuklearreko berrikuntza aprobetxatzea.
 - -11. Gutxi aberastutako uranioaren erregai-hornidura bermatuko duen Europako ekoizpen-ahalmenerako prestaketa-fasea.



2023ko urria

Up2Circ. ETEetan ekonomia zirkularra babesteko programa. Deialdi pilotua. Horizon Europe Berrikuntza Esparru Programaren 4. klusterra.

- **Up2Circ.** Digitalizazio, industria eta espazioko 4. klusterra. HORIZON-CL4-2022-RESILIENCE-01-26. Atalak EBren erresilientzia-estrategia gisa definitutako hainbat arlo hartzen ditu barne. Hurrengo epea: 2023.11.15.

ICOS. Gauzen Interneten eta hodeiaren arteko sistema eragile jarraituak. Horizon Europe Berrikuntza Esparru Programaren 4. klusterra.

- **HORIZON-CL4-2021-DATA-01-05.** Lehen deialdi irekia (Internet of things to cloud operating system, IoT2cloud O.S., ICOS). Digitalizazio, industria eta espazioko 4. klusterra. Datu-teknologiaren atala. Hurrengo epea: 2023.11.17.

FOODITY. Elikadura- eta nutrizio-datuetan oinarritutako aplikazioak. Horizon Europe berrikuntzako esparru-programaren 6. klusterra.

- **HORIZON-CL6-2022-GOVERNANCE-01-10.** Horizon Europe enpresaren 6. klusterra (CL6). Elikadura, Bioekonomia, Baliabide naturalak eta Nekazaritza. Gobernantza berritzailearen helburuaren, ingurumen-behaketaren eta Itun Berdea babesteko irtenbide digitalen atala. Hurrengo epea: 2023.11.8.

IN TRANSIT. Prestakuntza-espeditzioak. Hainbat sektorearen arteko partzuergo trantsizio ekologiko eta digitalerako. Horizon Europe berrikuntzako esparru-programaren 6. klusterra.

- **HORIZON-CL6-2022-GOVERNANCE-01-10.** Ljubljanan eta Sevillan IN TRANSIT ikaskuntza-espeditzioetara joateko bidaia-txarteleterako interes-adierazpenetarako deialdia. Horizon Europe enpresaren 6. klusterra (CL6). Elikadura, Bioekonomia, Baliabide naturalak eta Nekazaritza. Gobernantza berritzailearen helburuaren, ingurumen-behaketaren eta Itun Berdea babesteko irtenbide digitalen atala. Hurrengo epea: 23.11.8.

CHAMELEON. Dronen erabilera lehen sektorean. Horizon Europe berrikuntzako esparru-programaren 6. klusterra.

- **HORIZON-CL6-2021-GOVERNANCE-01-21.** 9 herrialdetako 12 erakunderen partzuergo, ekoizpena optimizatzeko eta nekazaritzan, abeltzaintzan, basogintzan eta landa-eremuetan sor daitezkeen arazoak identifikatzeko. Lehenengo deialdi irekia. Horizon Europe enpresaren 6. klusterra (CL6). Elikadura, Bioekonomia, Baliabide naturalak eta Nekazaritza. Gobernantza berritzailearen helburuaren, ingurumen-behaketaren eta Itun Berdea babesteko irtenbide digitalen atala. Hurrengo epea: 23.11.1.



2023ko urria

FORWARDS. Basoak lehengoratzeko eta basogintza klimatikoki adimendunerako programa pilotuak ezartzea. Horizon Europe berrikuntzako esparru-programaren 6. klusterraren klimarako atala.

- **HORIZON-CL6-2022-CLIMATE-01-05.** Horizon Europe enpresaren 6. klusterra (CL6). Elikadura, Bioekonomia, Baliabide naturalak eta Nekazaritza. Hurrengo epea: 23.11.1.

Berrikuntzak hornikuntza-sistema publikoetan eta pribatuetan. EIC, Berrikuntzaren Europako Kontseilua. Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **HORIZON-EIC-2023-INNOVPRO-01-01.** Hurrengo epea: 23.11.7.

“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea